

2026ko ARTILE BILKETA

Kaixo, artzain:

Jakinarazi nahi dizugu **2026an Gipuzkoan artile bilketa antolatuko dugula**. Hauek dira aurtengo bilketa puntu eta egunak:

EGUNA	LEKUA	HELBIDEA
Ekainak 29	Idiazabal	Diseminado Rural Barreiatua 93 (Gorrotxategin granja)
Ekainak 30	Oñati	Urrutxuko ekarpen gunea
Uztailak 1	Azpeitia	Lapatx; Urola Erdiko Mankomunidadea, Errezil bidea z/g
Uztailak 2	Elgoibar	IMH ikastetxeko azpialdeko apea gunea
Uztailak 6	Asteasu	Agroaldea; industrialgunean, 188. poligonoa
Uztailak 7	Oiartzun	Makutxo bidea 5
Uztailak 8	Berastegi	Artaleku; Aitzerga auzoa

Aurtengo bilketaren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- **Bilketa DOAN izango da.**
- **Saka bereziak banatuko** dira. 60 kg artile sartzen zaizkio. Hauek erdira bete daitezke maneiurrazago baterako.
- **Artilea garbia eta busti gabea jasoko da.** Horretarako, **lehorpean jaso beharko** dira bilketara arte. Artilea moztu bezain pronto sakatan sartzearekin nahikoa da.
- Saka guztiak **identifikatuta egongo dira**; artilea balorizatzen hasita, hobetsuen edo garbienen jarraipena egin ahal izateko.
- Aurreko urteetan bezala, artilea entregatzearen agiria ere bertan emango zaizue.

Artilea entregatzeko, aurrez IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA. Izena ematearekin, saka berezi horiek non eta zenbat jaso adieraziko zaizue.

Izen-emateko azken eguna: MARTXOAREN 13a.

Horretarako:

– Deitu: 943 11 21 73

– Idatzi: lurraldeoreka@gipuzkoa.eus

Artilearen bilketa eta kudeaketa **Gipuzkoako Artile Mahaitik** eramango da, **Foru Aldundiak koordinatuta**. Bilketaren **kostuak Foru Aldundiak hartuko ditu bere gain**. Aurten berrikuntza batekin gatoz; artilea balorizatzeo helburuarekin, jasotakoa haria egiteko erabiliko da. Horrela, artileari balioa eman, eta kudeaketa ahalik eta egokiena eta erabilgarriena izango da, sektorearentzat kosturik txikienarekin.

Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan, mesedez.

Agur t'erdi.

Antolatzailea:



Laguntzailea:

